

BALIO PROPOSAMENA


Ziur nago noizbait arrisku egoera baten aurrean egon garela, nolabait abusu, jazarpen, lapurreta edota bahiketa. Zoritxarrez ekintza hauek ezin ditugu ekiditu, baizik eta hauei soluzio bat bilatu; hortik dator gure proiektua Arex. Gure proiektuaren helburua, pertsona guztien ongizatea bermatzea da, eta horretarako, sistema berri bat sortu dugu.

Arex, lepoko baten itxura duen sistema teknologiko berri bat da, larrialdi egoera baten aurrean gaudenean, estualdi mezu bat bidaltzen duena pertsonak berak ezarritako kontaktuari; hau da, poliziarri, gurasoei edo lagun bati. Modu honetan, biktimaren kokapena bidaltzen zaio pertsona horri, dei batez gain. Baina, nola funtzionatzen du sistema honek? Lepokoaren jabearen hatz-markaren bitartez jarduten du, eta bakarrik nagusiak bere hatza kokatzen duenean aktibatzen da.



Gure produktua edozein publikori zuzenduta dago, bezeroari segurtasuna eskaintzeko asmoz. Ekoizkin honek hainbat ezaugarri ditu beste guztiengan desberdina egiten duena:

Hasteko, oso diskretua dela esan dezakegu, lehen begiratuan lepoko arrunt bat dirudielako. Baina produktu honen atzean, oso lan konplexua dago. Horretaz gain, diseinu erakargarrikoak dira, hau da, hainbat tamaina, kolore eta materialekoak dira. Gainera, oso erosoak dira, ez dutelako eragozten.



Nahiz eta antzeko funtzioa duten lepokoak egon, gure proiektuak pertsonen beharrak eta segurtasuna bermatzen ditu. Munduan zehar ezagutzen ditugun lepokoak apaingarri gisa funtzionatzen dute. Jada, gure produktua estetikoki polita izateaz gain, segurtasun beharra duten pertsonen premiak asetzen ditu. Diseinuari erreparatuz, oso diseinu diskretukoak izango dira. Modu honetan, pertsonentzat erabilgarriagoa eta erosoagoa izango da hauek eramatea.

Arex produktua, pertsona multzo zehatz bati dago bideratuta. Hau da, 15 urteko gazte batetik, 80 urteko heldu batera arte bideratuko dugu.